

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

11/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, zeinaren bidez eskatzen baitzaie Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Artziniegako Udalari eratu dezatela patronatu bat, Artea Etnografia Elkar-tearekin batera, Artziniegako Museo Etnografikoa kudeatzeko, finantzatzeko eta bultzatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko otsailaren 13an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

11/2019 Mozioa, otsailaren 13koa, zeinaren bidez eskatzen baitzaie Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Artziniegako Udalari eratu dezatela patronatu bat, Artea Etnografia Elkar-tearekin batera, Artziniegako Museo Etnografikoa kudeatzeko, finantzatzeko eta bultzatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Artziniegako Udalari eskatzen diete ezen, Artea Etnografia Elkar-tearekin batera, sinatu dezatela Artziniegako Museo Etnografikoa kudeatzeko, finantzatzeko eta bultzatzeko hitzarmen bat. Helburua izango da proiektu honen iraupena bermatzea, estrategikoa delako Arabako Lurralde Historikoarentzat eta Aiaraldearentzat. Errespetatuko da museoak bere sorreran izan zuen izaera parte-hartzailea, asoziatiboa eta herrikoia, bai eta museoa zein funtsak Artearekin batera kudeatzea.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diete eutsi diezaiola 2019 ekitaldirako 35.000 euroko diru-partidari, ahalbidetze aldera elkarteak jarraitu dezala kudeatuko duen ondarea berreskuratzen eta erakusten, bisita didaktikoak egiteko gida-zerbitzua kontratatzen, tailer kulturalak antolatzen, bai eta inguruko informazio turistikoa ematen.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA